

Gobernantza

102-18; 102-19; 102-20; 102-22; 102-23; 102-24; 102-26;
102-27; 102-28; 102-29; 102-30; 102-31; 102-33; 205-2

EROSKI taldearen kudeaketa eredua

Gobernu korporatiboari dagokionez, EROSKI Koop. E. sozietate nagusiari jarraitzen diote Taldearen gainerako sozietateek.

Bestelako gobernantza eredu bat duen sozietate bakarra dago, nahiz eta Taldearenaren oso antzekoa den eta harekin adostuta egiten den: VEGALSA da, EROSKIk partaidetzaren %50a baitu sozietate horretan.

EROSKI Koop. E. gure sozietate nagusiaren gobernu korporatiboa berezia da, zeren eta kontsumo kooperatiba bat da. Horregatik, bai kontsumitzaileek eta bai langileek parte hartzen dute erakundearen kudeaketan eta erabakietan. Hala, EROSKI bi komunitateren bitartez egituratzen da: batetik daude 1.170.803 Kontsumo Bazkide (aurreko urtean baino %4,72 gehiago da hori, beste 52.797 bazkide kontsumitzaile berrirekin), zeintzuek beren kontsumitzaile izaeraren kontzientzia berezia duten eta kooperatiban inplikatzera erabakitzen duten; eta, bestetik, 9.796 Bazkide Langile (EROSKI Kooperatiba Elkartekoak 8.974), zeinetatik 413 2018an sartu baitira, ekarpena bai kapitalean eta bai lanean egiten dutenak erakundearekiko beren konpromiso horretan.

Bi kolektiboak kudeatzeko, bakoitzari bere estatutuak eta araudiak eman dizkiogu, eta horiek arautzen dute bien antolakundea bakoitza bere egitura propioarekin.

EROSKI Koop. E.-aren gobernu korporatiboa, kudeaketa eta ordezkaritza bere Kontseilu Errektorearen bitartez egiten da. Batzar Nagusian hamabi kide egoten dira lau urtez, eta berriz ere hautatuak izan daitezke. Erdia kontsumitzaileen kolektibotik dator, eta beste erdia langileenetik.

Estatutu Sozialek ezartzen dituzte Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideen bateraezintasunak. Hala berean, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak zaintzen du egokitasun irizpideak betetzen dituztela eta interes gatazkarik ez dagoela eta kontuan izaten ditu genero aniztasunaren gaiak.

Antzinasun handiena duen kontseilaria 2009an sartu zen, eta 2018an, barne araudiari jarraikiz, kontseilariari erdiak berri ziren. Nahiz eta gaur egun Kontseilu Errektoreko kideek ez duten ardura exekutiborik, beren eginkizunen artean nabarmentzekoak dira kooperatibako presidentea eta zuzendariak izendatzen dituztela, Barne Erregimenaren araudia finkatzen dutela eta inbertsioak onartzen dituztela.

Kontseilu Errektoreak zuzentzen du Batzar Nagusia, sozietatearen borondatea agertzen duen organo gorena. Era paritarioan osatua dago Bazkide Kontsumitzaileen 250 ordezkari eta beste hainbeste Bazkide Langilez. Dagozkien Kontsumoko eta Laneko Prestaketa Batzarretan berresten dira hautaturiko ordezkariak, eta haien agintaldiak 4 urte irauten du. Bertan, ahotsa bai baina



corporativo.eroski.es/eu/memoria-2018/carta-consejo-rector

Kontseilu Errektorea

Leire Mugerza Gárate
Bazkide Kontsumitzailea
(independientea), Presidentea

Edorta Juaristi Altuna
Bazkide Langilea, presidenteordea

Sonia Ortubai Balanzategui
Bazkide Kontsumitzailea
(independientea), Idazkaria

Bokalak:

Oskar Goitia Zubizarreta
Bazkide Kontsumitzailea
(independientea)

Nerea Esturo Altube
Bazkide Langilea

Cristina Gainza Salinas
Bazkide Langilea

Lander Beloki Mendizabal
Bazkide Kontsumitzailea
(independientea)

Gonzalo Loro Periañez
Bazkide Kontsumitzailea
(independientea)

Ana Isabel Zariquiegui Asiain
Bazkide Langilea

Iñigo Arias Ajarrista
Bazkide Langilea

M^o Asunción Bastida Sagarzazu
Bazkide Langilea

Eduardo Herce Susperregui
Bazkide Kontsumitzailea
(independientea)

botorik ez dute Kontseilu Sozialeko Presidentetzak eta Zuzendaritza Nagusiak. Batzar Nagusiaren eginkizunen artean nabarmentzekoak dira kontuak onartzea, emaitzak aurkeztu eta banatzea, kooperatibaren politika orokorrak ezartzea eta, hala dagokionean, Estatutu Sozialak aldatzea. Urtero elkartzen da ohiko deialdi bidez. 2018an, horko kideen erdiak ere berritu egin zituzten.

Kontseilu Errektoreak zenbait eskumen lagatzen dizkio Zuzendaritza Kontseiluari –hilaro elkartzen da harekin, erakundearen gai ekonomikoak, ingurumen arlokoak eta sozialak lantzeko–, eta beste batzuk bere baitan eraturako batzordeei lagatzen dizkie, zeintzuek beren osaera eta funtzionamendu arauak onartzen baitituzte. Hala, Kontseilu Errektoreak elkartu egiten ditu Auditoretza eta Betetze Batzordea, Izendapen eta Ordainsarien Batzordea eta Batzorde Betearazlea.

Horretaz gainera, kooperatibak Errekurtso Batzorde bat du, Batzar Nagusiak aukeraturiko bost kidez osatua, erdiak 2018an berrituak, gure barne araudiak dakarren bezala; batzorde horren bitartez ebazten dira Kontseilu Errektoreak harturiko erabakien aurka bazkideek aurkezturiko helegiteak eta estatutuekin zerikusia duten gorabeherak. Zaintza Batzordea ere badugu, kontrol organo gisa, Batzar Nagusiko hiru kidez osatua; horiek hauteskunde prozesuen kontrola eta segimendua egiten dute, eta estatutuko 71. artikulua batzordeari ematen dizkion funtzioak betetzen dituzte. Batzorde hori gonbidatu gisa joaten da Auditoretza eta Betetze Batzordera, zeinak korporazioaren ikuskaritza eta gobernua eramaten baititu.

Kontseilu Errektoreak modu proaktiboan izaten du erakundearen kezkarik garrantzitsuenen berri, nola eta negozioen, erakundearen eta merkatuaren martxaren

segimendua eginez, orobat Kontseilu Errektorearen saioetan enpresetako zuzendariek adierazten dutenaren bidez. Jarduera horien osagarri dira batzorde bakoitzari dagokion espezialitateko gaien txosten periodikoak eta aurretiko informazio-prozedurak; hala, txosten eta informazio horiek aztertu, eta, ondoren, proposamen espezifikoak prestatzen dira.

Azkenik, Kontseilu Errektoreak bi kontsulta organo ditu: Kontseilu Soziala, 16 bazkide langilez osatua, alderdi soziolaboralak lantzeko, eta Kontseilu Kontsumerista, Kontsumitzaileen Tokiko Batzordeetako ordezkari osatua, kontsumoarekin zerikusia duten gaiak lantzeko.

Edukien gaineko prestakuntza eta gaurkotze programa bat ere badugu Kontseilu Errektoreko kideentzat; horren helburua da kideek gai ekonomikoen, ingurumen arlokoen eta gai sozialen ezagutzan sakontzea. 2019ko urtarrian bi prestakuntza ekintza izan dira; bat, eskusiboki errektore berrientzat, negozioren ezagutzara bideratua, eta, beste bat, errektore guztiei begirakoa, arlo ekonomiko finantzarioa, ordainsarien arloa, barne ikuskaritza eta gobernu korporatiboa lantzeko.

Kontseilu Errektorearen, haren baitako batzordeen eta zenbait karguren urteko jardueren autoebaluazioan ere aurreratu dugu, hirugarren urtez segidan. Autoebaluazio horrek galde-sorta indibidualak ditu, eta horietan galdera kualitatiboak erantzuten zaie; horren bitartez, informazio osoa eta hobekuntza-proposamen espezifikoak jasotzen dira. Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak autoebaluaziorako galde-sortaren emaitzak analizatu zituen, eta ekintza plan berriak aurkeztu. Kontseilu Errektoreak onartu egin zituen, eta, hala, abian jarri dira plan horiek, kontseiluaren eta batzordeen zereginak eta gaien tratamendua hobetzeko helburuz.



Zuzendaritza Kontseilua

Javier Amézaga
Baliabideen arloko
zuzendaria

Agustín Markaide
Presidentea

Iñigo Eizaguirre
Sozietateko zuzendari
nagusia

Eva Ugarte
Marketin arloko
zuzendaria

Rosa Carabel
Sarearen zuzendaria

Beatriz Santos
Zuzendari komertziala

EROSKI Kooperatiba Elkarteko gobernu egitura

Kontseilu Errektorea

Kooperatiba gobernatu, kudeatu eta ordezkatzeko organoa.

Osaera: 6 bazkide kontsumitzaile, 6 bazkide langile, Batzar Nagusiak hautatuak.

Eskumen nagusiak:

- Enpresaren ikuspegia, eginkizunak, baliokak eta kudeaketa etikoa.
- Erabakiak hartzea kooperatibaren strategiari buruz eta negozioarekin zerikusia duten Zuzendaritzaren jarduerari buruz.
- Kontratu eta inbertsio nagusiak onartzea.
- Arriskuak eta barne kontrolak kudeatzea.
- Bere kudeaketaren kontuak ematea Batzar Nagusiarri.
- Erantzukizun sozial korporatiboaren gaineko politikak hartzea.

Zaintza Batzordea

Sozietatearen organoen, ikuskaritzen eta gobernu korporatiboak behar bezala funtzionatzen dutela bermatzen duen organoa.

Osaera:

3 bazkidez osatua dago, Batzar Nagusiak hautatuak.

Errekurtso Batzordea

Bazkideek Kontseilu Errektorearen aurka eginiko helegiteak eta estatutuan aurreikusitako guztiak ebazten ditu.

Osaera:

5 bazkidez osatua dago, Batzar Nagusiak hautatuak.

Batzar Nagusia

Sozietatearen borondatea adierazten duen organo gorena. Urtean behin biltzen da.

Osaera:

Bazkide kontsumitzaileen 250 ordezkari eta bazkide langileen 250 ordezkari, hurrenez hurren Kontsumoaren eta Lanaren Prestakuntza Batzarrek berretsiak.

Eskumen nagusiak:


- Kontuak onartzea, emaitzak aurkeztea eta banatzea.
- Plan estrategikoa eta urteko kudeaketa planak onartzea.
- Estatutu Sozialak aldatzea.
- Kontseilu Errektoreko kideak hautatzea.

Bazkide Langileen Prestakuntza Batzarrek

Langile jabeen informazioa emateko urteko bilerak dira, Batzar Nagusian lantzen diren gaien berri emateko eta ordezkariak berresteko.

Kontsumo Bazkideen Prestakuntza Batzarrek

Bazkide Kontsumitzaileei informazioa emateko urteko bilerak dira, Batzar Nagusian lantzen diren gaien berri emateko eta ordezkariak berresteko.



Erantzukizun exekutiboa ekonomia, ingurumen eta gizarte gaietan

Ekonomia eta finantza arloen kudeaketa

Helburu ekonomikoak ECOFINen bidez kudeatzen dira. EROSKI Koop. E-aren Auditoretza eta Betetze Batzordeak ikuskatzen du, Kontseilu Errektoreko batzordeak eskuordetuta. Batzorde horrek sozietatearen kontabilitate-alorreko informazioaren eta kontrolaren segimendu etengabea egiteko ardurua du. Batzorde horren Barne Auditoretzak ebaluazio independentearen ikuspegi sistematikoa ematen dio, eta efikazia eta efizientzia hobetzen du arriskuak kudeatzeko prozesuetan eta barne-kontrolen sistemetan. Emaitzak Kontseilu Errektoreak baloratzen ditu, eta, ondoren, kanpo ikuskaritza batek aztertzen ditu urtero. Gero, Batzar Nagusiak bere onespina ematen die urteko kontuei eta ikuskaritzaren txostenari.

Harreman komertzialak eta tokiko ingurunearen sustapena Zuzendaritza Komertzialetik kudeatzen dira, eta harreman instituzionalak, berriz, Idazkaritza Nagusiaren mende daude.

Gizarte arloaren kudeaketa

Gure langileen kudeaketa Gizarte arloko Zuzendaritza Nagusiaren mende dago. Zenbait sailen bitartez, besteren artean, honako eremu hauen ardurua du: Laneko arriskuen prebentzioa, Lan harremanak eta administrazioak, Enpleguaren eta talentuaren garapena, Pertsonen antolamendua eta garapena eta Kudeaketa soziala. Osasun eta Jasangarritasun Saila, Marketin arloko Zuzendaritzaren mende dagoena, Elkartasunaren alorraz eta gizarte ekintzaz arduratzen da, taldeko sozietateen gizarte erantzukizuneko sailekin batera. Zeregin horren osagarri dira EROSKI Fundazioak eremu horretan betetzen dituen zereginak.

Ingurumen arloaren kudeaketa

Ingurumenarekin dugun konpromisoa era transbertsua leian kudeatzen da balio kateko eremu funtzional guztien bitartez. Hala nola Garapen eta Logistikaren eremuak — Baliabideen Zuzendaritza Nagusiaren mende daudenak—, Zuzendaritza Komertziala, Sare Komertzialaren Zuzendaritza Nagusia eta Osasun eta Jasangarritasun Saila —Marketin arloko Zuzendaritzaren mende dagoena—. Hala, ziurtatzen dugu erakundearen eremu bakoitzak bere ingurumen gorabeherak kudeatzen dituela. Zeregin horren koordinazioa zenbait forok betetzen dute (Osasun Batzordea, Marketin Batzordea...), eta horiek arduratzen dira enpresaren erabaki estrategikoak hartzeaz.

Kudeaketa hori egiteaz gain, bezeroen artean ingurumenaren aldeko sentsibilitatea sustatzen dute Osasun eta Jasangarritasun Sailak, EROSKI Fundazioak bere kanpaineekin eta Taldearen sozietate askotarikoen gizarte erantzukizuneko sailak.

Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa

EROSKIren jarduerak eta harremanak zintzoak eta etikoak direla ziurtatzeko, Jarrera Kode bat dugu, gure langileei, bazkideei eta hornitzaileei jakinarazten zaiena, eta eskura dago interes talde guztientzat. Zigorrei dagokienez, EROSKI Koop. E-aren Barne Erregimeneko Araudia dugu, Talde osoari aplikagarri zaiena.

Oro har, gure erakundearen ospe ona eta sinesgarritasuna zaintzeko, alde batera uzten ditugu gure interesekin bat ez datozen jarduerak, ezarri ditugun arauak betetzen ditugu, agintari eskudunekin kolaboratzen dugu, erakundearen aktiboen erabilera ona egiten dugu, eta behar ez bezalako ordain, arreta eta opariei uko egiten diegu.

EROSKI kanal eta komunikabide konfidentzialak ditu Jarrera Kodearekin zerikusia duen edozein kontu kontsultatzeko eta jakinarazteko: helbide elektronikoa bat, telefono bat eta posta bidez helarazten den inprimakia. Kontseilu Errektorearen Auditoretza eta Betetze Batzordeak izendatzen du Betetze Bulegoko arduraduna Barne Kontrolako Organoaren bitartez, zertarako eta jakinarazpen eta kontsulta horiek hartu, bideratu, segimendua egin, informatu eta fitxategietan jasotzeko. Auditoretza Batzordeak arduratzen da kontsultak eta jakinarazpenak hartzeko ezarritako prozedurez, eta balekoa ematen die emandako erantzunei.

Ustelkeriaren eta diru zuritzeen kontrako borroka

Ustelkeriaren eta diru zuritzeen alorrean, EROSKI Taldeak betetze politika bat du. 2017. urtetik, Arrisku Penei Aurre Hartzeko plan bat dugu, non prebentziozko politika bat diseinatzen den eta barne kontrolerako ezarri beharreko neurriak zehazten. Alde horretatik, Arrisku Penalei Aurre Hartzeko Eskuliburua eratu da, eta bertan honako alderdi hauek jorratzen dira:

- Taldeak aldizka aurre egin beharreko arrisku egoeren xehetasunak.
- Delitu arriskua izan dezaketen operazioetako jarduera protokoloa.
- Delituei aurre hartzeko politika efikaz bat diseinatzeko behar diren gomendioak formulatzea, eta bertan zehaztea Taldeak zein ordekaritza- eta kontrol-eredu izango duen honako alderdi hauei dagokienez: gorabeheren jakinarazpenak, neurrien ezarpena edo lehendik daudenen hobekuntza, eta Administrazio Kontseiluarentzako delituzkoak diren jarrerren jakinarazpena.

Betetzearen alorreko obligazioak betetzeko Barne Kontrolako Organoa jarri da martxan. Organo horrek Betetze Bulegoaren laguntza du, eta hura arduratzen da Arrisku Penalei Aurre Hartzeko Plana kudeatu eta betearazteaz.

Gure Kode Etikoa

Gure Kode etikoa eguneroko kudeaketaren ardatza da, eta praktikan honako lerro hauei jarraitzen die:

Zuzendaritzaren helburu nagusien artean kudeaketa etikoa **txertatzea**.

Legedian gizarte erantzukizunaren alorrekoak diren alderdiak barneratzea eta etengabe hobetzen **saiazea**.

Adierazleen bitartez erakundearen jokabide etikoa **egiaztatzea**, hobetzeko premian diren jarduera eremuak zehazteko.

Kudeaketa etikoaren aldetik hobekuntza **helburuak finkatzea** eta horiek lortzeko planak egitea eta martxan jartzea.

Kudeaketa sistemaren ezartzeko prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak behar bezala **formatzea eta informatzea** eta gizarte erantzukizunera begira jardunbide onak sustatzea.

Hornitzaileei eta azpikontratatuakoei Kode Etikoari buruz behar bezala **informatzea** eta gizarte erantzukizunari buruz jakintza transferitzeko mekanismoak sortzea.

Kanpoko alderdi interesdunei (kontsumitzaileak, jabeakideen erkidegoak, Administrazioa, bezeroak, hornitzaileak, etab.) **erantzutea**, gure gizarte-jokaerari buruzko interesa agertzen badute.

Gizarteari gure Kode Etikoa, haren arauak eta helburuen betetze maila era irekian eta efikazean **jakinaraztea**.

Interes gatazken prebentzioa eta kudeaketa

Zenbait mekanismo ezarri ditugu barne arau hauetatik erator daitezkeen interes gatazkei aurre hartzeko edo kudeatzeko: EROSKI Koop. E-aren Estatutu Sozialak, Auditoretza eta Betetze Batzordearen Araudia, Jokabide Kode Korporatiboa, Kontratazioaren Barne Prozedura eta Zuzendaritzaren Estatutua.

Gure araudiaren arabera, Batzar Nagusiak baimendu behar du kooperatiba Kontseilu Errektoreko, Zaintza Batzordeko edo Zuzendaritzako kideren batekin edo beren familiakoren batekin lotzen duen edozein jarduera, bigarren mailako odolkidetasuneraino edo ezkontza-ahaidetasuneraino. Horretaz gain, Auditoretza eta Betetze Batzordearen eskumenetan dago Kontseilu Errektoreari informatzea interes gatazkek gertatzen badira sailetan eta zuzendaritzetan, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak egindako txostenen arabera.

Inpaktuen eta arriskuen kudeaketa

EROSKI Koop. E-aren Auditoretza eta Betetze Batzordeari eta Barne Kontrolerako Organoari dagokie, batez ere, ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen alorreko inpaktuen, arriskuen eta aukeren identifikazioa, ebaluazioa eta kudeaketa. Haien arduratzen dira Kontseilu Errektoreari aldizka informatzeaz zein organori dagokion, azken batean, erakundearentzat arriskuak izan daitezkeen guztiak kudeatzeko barne-arauak betetzen direla zaintzea.

Horretaz gain, **Arrisku Penalei Aurre Hartzeko Plana** garatu dugu. Urtero berrikusten da, eta bertan identifikatzen da zein diren EROSKI Taldearen jardueretan delitu izateko probabilitaterik handiena dutenak. Plan honek EROSKI Talde osoa hartzen du, salbu eta VEGALSA, zeinak berea propioa baitu, eta FORUM SPORT eta EROSKI Bidaiak, zeinetara 2019an zabalduko den. Planean ageri dira arrisku handiena duten sailak edo eremuak, zein egitaterengatik hauts daitezkeen araua eta zer neurri hartu behar dituzten arrisku taldeek, orobat hura ikuskatzeko eta egiaztatzeko erabiliko diren monitorizazio prozesuak.

Baliabide naturalen eta ingurumenaren kontrako delituei dagokienez, zenbait jarduera jasota datoz EROSKIren sail bat baino gehiago inplika litzakeenak, orobat haiei aurre hartzeko neurriak eta ezarritako dauden kontrol espezifikoak, zeinak funtsean diren Taldeko organoek elkarri berri emateko sistemak. Horretaz gain, ingurumen erantzukizunaren poliza bat dugu, zeinak urteroko muga erantsi bat duen 10 milioi euroko estaldura guztietarako eta 5 milioi euroko muga bat istripu bakoitzeko estaldura guztietarako.

Prebentzio testuinguru honetan, Kontseilu Errektoreak, urtero, sakon aztertzen ditu korporazioaren arriskuak oro har. *Gobernu korporatiboaren urteko txostenean* (E atala) –eskura dago EROSKIren webgunean– arriskuei buruzko informazioa dator (arriskuak kudeatzeko sistemaren irismena, arriskuak kudeatzeko sistemaz arduratzen diren organoak, ekitaldian gauzatutako arriskuak...).

VEGALSaren kudeaketa eredia

Gobernu korporatiboari dagokionez, EROSKI Koop. E. sozietate nagusiari jarraitzen diote Taldearen gainerako sozietateek.

Dena den, VEGALSA, EROSKIk partaidetzaren %50a duen sozietatea izanik, badu bestelako gobernantza eredu bat, nahiz eta Taldearenaren oso antzekoa den eta harekin adostuta egiten den.

VEGONSA Agrupación Alimentariaren Administrazio Kontseiluko presidentea Javier Amezaga da, EROSKIk Baliabideen zuzendari nagusia. Administrazio Kontseilua, berriz, VEGALSAn erabakiak hartzeko organo gorena da, eta hilerio egiten dute bilera. Baimena ematen du saltoki komertzialak ireki, itxi eta lekualdatzeko, kopuru batetik gorako inbertsioak egiteko (araudia), zuzendaritza taldean aldaketak egiteko, eta abar, eta urtero jarraibide batzuk ezartzen ditu Kudeaketa Plana eratzeko (helburu kualitatiboak) eta urteko aurrekontu ekonomikoak prestatzeko.

Administrazio kontseiluak urtero autoebaluazio bat egiten du. Ebaluazio horretatik eratorritako neurrien artean, nabarmentzekoa da segimendu zorrotzagoa egiten zaiela beharrezkotzat jotzen diren gaiak eta zenbait gaitan aurretik zegoena baino kontrol zorrotzagoa egiten dela lehenik ebaluazio zorrotzik egiten ez zen gaitan edo tratamendu jakinik ez zutenetan.

Administrazio Kontseiluak, bere eraketako testuan, Zuzendaritza Nagusiari uzten dizkio enpresaren funtzionamendu onaren mesedetan zuzendaritza-kargu horri dagozkion erabakiak, salbu eta hari laga ezin dizkionak. Horretaz gain, Administrazio Kontseiluak zenbait zuzendaritza ahaldundu ditu eginkizun jakin batzuetarako.

VEGALSako zuzendari nagusi Joaquín Gonzálezek hamabostean behin biltzen du Zuzendaritza Batzardea gainerako zuzendaritzetako arduradunekin, sozietatearentzako garrantzizkoak diren gaiak lantzeko, bai iragarrita zeudenak eta bai ezustean etorri direnak, zertarako eta erabakiak hartu eta ondoren jarraipena egiteko.

Barne Kontseiluak, berriz, zuzendari nagusiak Administrazio Kontseiluan aurkezturiko proiektuak eta gaiak erabakitzen ditu, eta Inbertsio Batzardeak inbertsioak nola egokitu analizatzen du, enpresaren helburuak betetzeko eta errentagarritasun edo efizientzia Planak betetzeko.

VEGONSA Agrupación Alimentaria SA-ren Administrazio Kontseilua.

- Javier Amezaga (Presidentea)
- Rosa M^a Carabel (Bokala)
- Jorge González (Bokala)
- José Alonso (Bokala)

Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa VEGALSAn

VEGALSAn beste organo bat ere badugu, **Betetze Batzardea**: Kode Etikoa, politikak eta prozedurak betetzen direla kontrolatzen du. Hiru kide ditu: Pertsonen Saileko zuzendaria, Eremu Korporatiboko zuzendaria eta kanpo abokatua, Sail Juridikoko Betetze Atalaren babes funtzionalarekin.

Horretaz gain, posta elektronikoko, telefono eta inprimaki espezifikokoak ditugu, zeinetan jasotzen baita edozein salaketa pertsonal ikustekoa duena Kode Etikoa edo Betetze Politikak urratzen dituen delituen baten zantzuekin edo susmoekin.

VEGALSAn sei Betetze Politika ditugu: ustelkeriaren aurkakoa, mesedeak eta opariak, interes gatazkak, erosketak eta kontratazioak, dohaintzak eta babesletzak eta pribatutasuna eta isilpekotasuna; eta gaur egun, segurtasun politika lantzen ari gara.

Interes gatazken prebentzioa eta kudeaketa

VEGALSAn, Interes Gatazkei Aurre Hartzeko Politika bat dugu, Administrazio Kontseiluak onartua, kontseilariari, zuzendariei eta enplegatuei begirakoa. Neurri jakin batzuk dakartza, iruzurrei aurrea hartzeko edo detektatu eta zigortzeko eta VEGALSaren funtzioa eta baliabideak kolektibo horien, beren familien eta hurkoen probetxurako ez erabiltzeko. Interes gatazkek Betetze Batzordeak kudeatzen ditu, edo, lagatzea erabakitzen badu, VEGALSaren Sail Juridikoaren Betetze Atalak, zeina Batzordeari laguntzeko eta aholku emateko eratua baita. Era berean, urtero, kontseilariak agiri bat sinatzen dute interes gatazkarik ez dagoela aitortzeko.

Inpaktuen eta arriskuen kudeaketa

Empresaren barne kontrolaren esparruan, VEGALSAn arriskuak kudeatzeko bi sistema ezarri ditugu: Arrisku Korporatiboaren Kudeaketa Sistema eta Delitu eta Arrisku Penalak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Programa (Betetze Plana). Era independentean funtzionatzen dute, baina paraleloki eta koordinatuta. Kudeaketarako eta kontrolerako egitura propioa dute, horretarako eraturiko organo banarekin, baina erantzukizun handiena eta azken erabakia Administrazio Kontseiluarena da. Organo horiek dira, batetik, Arriskuen Analisisirako Batzordea, arrisku korporatiboaz arduratzen dena, eta Betetzen Batzordea, arrisku penalak kudeatzen dituena.

Kasu bakoitzean markaturiko maiztasunarekin, zenbait gai eramaten dira Administrazio Kontseilura eta baloratzen da ea sartuko dituzten edo Arrisku Korporatiboaren Kudeaketa Sistemari edo Betetze Planeari, eta iritzia ematen dira inpaktu jakinen salbuesteei buruz eta zein maiztasunekin informatu behar den. Administrazio Kontseiluak balekoa eman dio bi sistemen eraketari eta kudeaketari. Era berean, zuzemen arauak eta prozesuak onartu ditu. Delituak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Eskuliburuan *Erabakiak hartzeko Protokoloa* bat sartzen da, zeina kontuak hartu beharra baitute erabakitzeko boterea duten eta sozietatearen borondatearen eraketan funtzioak dituzten organo guztiak.

Arriskuen Analisisirako Batzordeak urtean bitan berri ematen dio Administrazio Kontseiluari, eta Betetze Batzordeak urtean behin, arriskuen deskargua eginez eta intereseko gaien berri emanez. Sail Juridikoaren Betetze Atalak bi deskargu egiten ditu urtean, Betetze Batzordearen aurretik.

VEGALSaren Kode Etikoa

Kode Etikoa jasota daude gure jardueraren alor guztietan aplikatzen ditugun printzipio etikoak eta balioak, eta horren osagarri dira Betetze Politikak eta horiek erdiesteko eratutako prozedurak



Legezatasuna:

legea eta barne araudia zorrotz betetzea.



Pertsonen osasunaren eta segurtasunaren aldeko **konpromisoa**.



Errespeturik handiena, ekitatea eta duintasuna langile, kolaboratzaile, bazkide eta lehiakide guzientzat eta enpresari loturiko gainerakoentzat.



Langileak hautatzeko eta promoziorako **irizpide objektiboak**.



Gardentasuna:

objektibotasuna eta profesionaltasuna jarduera guztietan eta interes taldeekiko harremanetan.



VEGALSako aktiboaren **erabilera**.



Intimitatea, datuen babesa eta isileko informazioa.



Ingurumenaren aldeko **konpromisoa**.